OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALA
Udal Osoa
AKTA

ZB. 2026 / 8

AKTA

UDAL OSOKO EZ-OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko Ez-ohiko batzarra bildu da:

Eguna: 2026/07/06
Ordua: 8:45-ak
Tokia: Udaletxeko areto nagusian
Bertaratuak:

Alkatea: Joana Mendiboure
Zinegotziak:

EH Bildu
- Agustin Lekuona Irastorza
- Olaia Lasa Olaziregi
- Garazi Urdampilleta Astibia
- Nora Velez del Burgo Zalakain
- Jexux Olaziregi Bagües
- Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
- Jon Albisu Mendiburu

EAJ-PNV
- Janire Mitxelena Lekuona
- Rafael Bergaretxe Urdampilleta

Idazkaria:

Maria Victoria Joaristi Olariaga

Etorri ezina adierazi dute:

Ibon Mitxelena Fernandez
Edorta Fernandez Etxepeteleku
Oihana Irastorza Gonzalez
Ekain Susperregi Ibarguren
Ibintza Iragorri Iriarte
Maitane Larruskain Agirre
Iñaki Arbelaiz Mitxelena

AZTERGAIAK:

1. Haurtzaro Ikastolak 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimena lortuz gero, udal espazioen lagapena egitea onartu da.

2. Haurreskolak Partzuergoko Estatutuak eta lankidetza-hitzarmena onartu dira.

ESKU047cb6cd-57bb-4aa1-8c35-9fd5f5b9cd2a

OIARTZUNGO
UDALA

-I-

HAURTZARO IKASTOLAK 2-3 URTEKO GELEN HEZKUNTZA-BAIMENA LORTUZ GERO, UDAL ESPAZIOEN LAGAPENA

AURREKARIAK

Udal Osoak, 2026ko maiatzaren 27an egindako batzarrean, honako erabakia hartu zuen, "Plan Orokorraren ELI-6A eremuko "F1" lursailaren gainean Oiartzungo Udal ikastola Partzuergoaren alde 2010 urtean eratutako azalera eskubidea amaitutzat ematea". Erabaki hori Oiartzungo Udalak, 2026ko apirilaren 21eko udalbatzan, Oiartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzea eta herriko 0-2 adin tarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea ebatzi zuelako hartu zen.

Horrekin batera Oiartzungo Udalak, lursailaren jabetza osoa berreskuratzearekin batera, bere egiten du eraikitakoaren jabetza, ondare eta akzesio guztiekin, eta ez du inolako kalte-ordainik ordaindu behar. Era berean, azalera-eskubidedunak ezarritako eskubide erreal edo pertsonal guztiak azkenduko dira.

Horrezaz gain, Oiartzungo herrian haurreskolaren zerbitzuak izango duen kudeaketa sistema berria ikusirik, URMENDIren instalazioetan OUI Partzuergoari sukaldea eta bere ardurapean utziko diren gainerako jarduera osagarriak egiteko lokalen erabilera zesioan utziko diola bermatzea erabaki zen. Eta arrazoi berdinarengatik, kontuan izanda OUI Partzuergoaren instalazioen finantzazioan Haurtzaro ikastolak ere parte hartu zuela, URMENDIren instalazioetan 2-3 urteko gelen zerbitzua emateko lokalen erabilera zesioan Haurtzaro ikastolari utziko diola bermatzea, adostuko diren baldintzetan erabaki zen.

Erabaki horiek Oiartzungo Udalak, 2026ko apirilaren 21eko udalbatzan, Oiartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzea eta herriko 0-2 adin tarteko haur-eskola zerbitzuaren kudeaketa Haurreskolak Partzuergoaren esku uztea ebatzi zuelako hartu ziren.

Oiartzungo Udalak Haurreskolak Partzuergoan integratzeko eskaera eginda, Hezkuntza sailak espedientea tramitatu du eta integraziorako Udalak Haurreskolak Partzuergoari lagapenean utzi beharreko instalazioen baldintzak zehazteko prozesuan aurrera egin da.

Bien bitartean, Haurtzaro ikastolak 2-3 urteko gelak kudeatzeko baimen administratiboaren espedientean, 2025eko abenduan hasitakoan, Hezkuntza sailak gelen zehaztapena eta ezaugarriak argitzea eskatu duenez, Haurtzaro ikastolak eskaera egin dio udalari Urmendi eraikineko bost ikasgela eta psikomotrizitate gelaren espazioa erabiltzeko aukera emateko, 2 urteko 50 ikaspostu bermatu ahal izateko.

Kasu honetan, ez da beharrezkoa, oraingoz, lagapenaren prozedura izapidetzea; izan ere, erabilera-lagapena Hezkuntza Sailak Haurtzaro Ikastolari 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimen administratiboa ematearen mende dago. Baimena emanez gero, orduan izapidetu beharko da dagokion erabilera-lagapenaren espedientea.

Horrenbestez, Idazkariak egindako txostena eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 3an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzari honako akordioa har dezan proposatzen da:

AKORDIOA

Haurtzaro ikastolak 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimen administratiboa lortuko balu, udalak bost ikasgela eta psikomotrizitate gelaren espazioa erabiltzeko lagapena gauzatzeko dagokion espedientea tramitatzea.

ESKU047cb6cd-57bb-4aa1-8c35-9fd5f5b9cd2a

Alkateak azalpena amaitu ondoren EAJ/PNV taldeko Janire Mitxelena zinegotziak hitza hartzen du ondorengoa adieraziz:

“Lehenik eta behin, gure taldeak argi utzi nahi du abstentzioaren alde bozkatuko dugula.

Txostenak aztertu ondoren zalantzak ditugu eta. Haurtzaro Ikastolaren eskaeran bertan "Oiartzungo Udalarena eta Haurtzaro Ikastolaren jabego partekatuko Urmendi" aipatzen da. Baina espediente juridikoa aztertuta ez dugu aurkitu hori jasotzen duen dokumenturik. Aurkitu duguna kontrakoa da. Eraikina Udalarengana itzultzen dela. Eta ondoren erabilera-lagapen bat izapidetu behar dela. Horregatik galdetzen dugu:

Zein da gaur egun Haurtzaro Ikastolak espazio horiek erabiltzeko duen titulu juridikoa?

Espedienteak dio lagapena justifikatzen dela Haurtzaro Ikastolak bere garaian eraikina finantzatzen lagundu zuelako.
Baina:

- Zenbatekoa izan zen ekarpen hori?
- Non dago hori egiaztatzen duen dokumentazioa?
- Eta zergatik justifikatzen du gaur egun udal ondare publikoaren erabilera?

Erantzun horiek ez ditugu aurkitu.

Eta amaitzeko, familiengatik hitz egin nahi dugu. Duela egun gutxi familiei egindako bileran esan zitzaien irailaren 4an normaltasunez Urmendira joateko, dena prest egongo zela eta ez zegoela inolako arazorik. Eta guk benetan espero dugu hori horrela izatea. Baina administrazio publiko batek ezin ditu lasaitasun mezuak soilik eman. Ziurtasuna eman behar du. Horregatik, gaur hemen galdera oso zehatz batzuk egingo ditugu.

Lehenengoa.
Gaur egun, Haurtzaro Ikastolak administratiboki planifikatuta ahal ditu 2026-2027 ikasturterako 2 urteko bost gelak?
Bai ala ez. Ez dugu azalpen luze bat eskatzen. Bai ala ez.

Eta baietz erantzuten baduzue, beste galdera hauek ere erantzutea eskatzen dizuegu:

- Badago hori egiaztatzen duen Hezkuntza Sailaren ebazpenik? “

Alkateak hitza hartzen du.
Erantzunean ez dela asko luzatuko dio, gehien bat gai hau aurreko Udalbatzan landu zelako eta horretaz gain egiten diren galderen erantzunak ez dagozkio udalari baizik eta Ikastolari, baimenak beraiek kudeatzen dituzte eta. Udalbatza honetan lantzen den gaia, espazio baten ingurukoa da, bere garaian udalak Udal Ikastola Partzuergoarentzat eraiki zuena, bi erakundeen artean finantzatutakoa eta egun berreskuratzen duena. Prozesu hau martxan jartzen da, Ikastolak ezinbestekoa duelako baimen hori eta udalak ez duelako oztopo izan nahi. Hau da laburbilduz Udalbatza honetara ekartzen dena eta behin hori erabakita Ikastolak Hezkuntzarekin baimenak lortzeko prozesuarekin jarraituko du.

Janire Mitxelena andereak hitza hartzen du eta Alkateari komisioan edukitako elkarrizketa gogorarazten du. EAJ-tak Haurtzaro Ikastolak 2026-2027 ikasturteko matrikulazioa eduki duen galdetu zuten eta Alkateak baiezkoa erantzun zuela azpimarratu du zinegotziak.

Alkateak ezezkoarekin erantzuten du, berak ez zuela baiezkorik esan. Prozedura hasita dagoela baieztatu du, baina oraindik baimenik ez dagoela azpimarratzen du eta hain zuzen ere, ez ohiko udalbatza honetan proposatzen den erabakian, “ Haurtzaro ikastolak 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimen

ESKU047cb6cd-57bb-4aa1-8c35-9fd5f5b9cd2a

administratiboa lortuko balu" jartzen duela gogorarazi du. Beraz, lagapen hau esandako baimena lortzearen baldintzapean geratzen dela dio.

Eztabaida amaitu ondoren Alkateak bozketari ekin dio. Idazkariak egindako txostena eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak, 2026ko uztailaren 3an, emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Haurtzaro ikastolak 2-3 urteko gelen hezkuntza-baimen administratiboa lortuko balu, udalak bost ikasgela eta psikomotrizitate gelaren espazioa erabiltzeko lagapena gauzatzeko dagokion espedientearen tramitea.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	8	EH Bildu
Aurka		
Abstentzioa	2	EAJ/PNV

-II-

HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ESTATUTUAK ETA LANKIDETZA-HITZARMENA ONARTZEA

AURREKARIAK

Oiartzungo Udalak, Haurreskolak Partzuergoarekin elkarlanean, udalerriko 0-2 urte bitarteko haur-hezkuntza zerbitzua Haurreskolak Partzuergoaren bidez emateko integrazio-prozesua abiatu zuen, horretarako beharrezko izapide administratiboak eginez.

Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuen 33. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerri berri bat Partzuergoan integratzeko, dagokion udalak Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak eta Partzuergoak integraziorako ezarritako baldintzak onartu behar ditu. Era berean, integrazioa lankidetza-hitzarmen baten bidez formalizatu behar da.

Aurrekoa betez, Haurreskolak Partzuergoaren eta Oiartzungo Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren proposamena prestatu da, bai eta haren I. eta II. eranskinak ere. Eranskin horietan jasotzen dira, hurrenez hurren, Haurreskolak Partzuergoaren esku uzten diren instalazioak eta Partzuergoan integratuko diren langileen zerrenda.

Lankidetza-hitzarmenaren proposamenarekin batera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 50. artikuluan aurreikusitako justifikazio-memoria espedientean jaso da, hitzarmenaren beharra eta egokitasuna, haren eragin ekonomikoa eta kontratu-izaerarik eza aztertuz.

Horrenbestez, espedientean jasotako lankidetza-hitzarmena, Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak, idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko uztailaren 3an emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Bilkurari honako erabakia hartzea proposatzen zaio:

AKORDIOA

Lehenengoa.- Haurreskolak Partzuergoko Estatutuak onartzea, bai eta Oiartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzeko ezarritako baldintzak ere, Haurreskolak Partzuergoko Estatutuen 33. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

ESKU047cb6cd-57bb-4aa1-8c35-9fd5f5b9cd2a

Bigarrena.- Onartzea Haurreskolak Partzuergoaren eta Oiartzungo Udalaren arteko lankidetza-hitzarmena, Oiartzungo Udala Haurreskolak Partzuergoan integratzeko, bai eta hitzarmenaren I. eta II. eranskinak ere.

Hirugarrena.- Alkate-Udalburuari, Joana Mendiboure andreari, ahalmena ematea aipatutako lankidetza-hitzarmena eta haren eranskinak sinatzeko, bai eta hitzarmenaren edukian funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko ere, baldin eta aldaketa horiek ez badute akordio honen xedea edo funtsezko edukia aldatzen. Era berean, ahalmentzea erabaki hau betearazteko beharrezkoak diren egintza, agiri eta izapide guztiak egiteko, agintzeko edota sinatzeko. Egindako aldaketen berri Oiartzungo Udalaren Osoko Bilkurari emango zaio.

Alkateak azalpena eman ondoren, espedientean jasotako lankidetza-hitzarmena, Haurreskolak Partzuergoaren Estatutuak, idazkariaren txostena eta Antolaketa eta Kontu bereziak batzordeak 2026ko uztailaren 3an emandako diktamenarekin adostasunean, Udalbatzak, aho batez, onartu du Haurreskolak Partzuergoko estatutuak eta lankidetza-hitzarmena.

Botazioa:

	Bozka kopurua	**Udal taldea/zinegotzia**
Alde	10	8 EH Bildu, 2 EAJ/PNV
Aurka		
Abstentzioa		

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 9:00ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Joana Mendiboure

Idazkaria

OIARTZUNGO UDALA

Sin.: Maria Victoria Joaristi Olariaga

EKS | CSV: ESKU047cb6cd-57bb-4aa1-8c35-9fd5f5b9cd2a
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026ID370009-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)

Digitalki sinatua:

Maria Victoria Joaristi Olariaga
Hirigintzako Administrazio Bereziko Teknikaria / Letradua
Data: 2026/07/30 10:30:34

Digitalki sinatua:

Joana Mendiboure
Alkatea
Data: 2026/07/30 12:37:37